



Lehenik herria





Zuatzu enpresa parkea,
Easo eraikina 4 behea.
20018 Donostia

www.sortu.eus

 @sortuEH
 SortuEH
 @sortueh
 /sortueh
 @sortueh

Herritmoa bizitzen

Lelo horrekin definitu dugu azken urteetan Sorturen izateko arrazoia edo misioa. Herri bizi bat, mobilizatua, kontzientziaduna behar dugu askapen prozesua bere helburuetaraino eramateko, 60 urteko borroka zikloan ereindakoaren uzta jaso eta indarberrituta aurrera segitzeko. Bide horretan, garai bakoitza irakurri eta horietara egokitzen jakin izan dugu, eta hori da bizirik eta indartsu jarraitzeko arrazoi nagusia.

Ezker abertzalean asko erabiltzen dugu inurri lanaren metafora. Olatu mobilizatzaileen urteak izan dira hauek. Herri bulkadaz ETaren zikloa modu ordenatuan ixtea lortu dugu, aro berri bat irekiz. Preso, iheslari eta deportatuen etxeratzeko bideari ekin diogu, inoizko mobilizazio jendetsuenetakoak eginez. Erabakitzeke eskubidearen aldeko mugimendua behetik gora sustatzen ibili gara. Pentsio duinen aldeko borrokan, zaintza grebetan eta sareetan, indarkeria matxistaren aurkako olatuan, prekarietatearen aurkako borrokan eta enplegu duinaren aldekoan eskuz esku ibili gara beste milaka militanterekin batera. EH Bildun eta EH Bain buru-belarri aritu gara, eta etengabe indartu gara. Denetan Euskal Herria erreferentzia eta ipar hartuta, herriarekin, herritarron interesak defendatzen.

Hurrengo orriotan egindako lanaren lagin txiki bat aurkituko duzu, militanteon ahotik kontatuta.



Lehenik herria!

Sorturentzat herria da lehentasuna. Etenik gabeko saiakera da geurea, bizi ditugun kezkak, haserreak eta ezinegonak indar eraldatzaile bilaka daitezten. Horregatik zaigu ezinbestekoa modu eraginkorrean antolatu eta borroka egitea. Hainbat eragile eta mugimendu sozialekin batera aritzen gara maiz, eskuz esku, jendarte eredu justua baitugu amets.



Lierni Etxebarria Mondragon
Arrasate

Lehenik Herria dinamika antolatzeko arrazoia, batetik, osasun larrialdiaren testuinguruan administrazioetako ordezkari politikoei egindako kudeaketa negargarria salatzea izan zen; izan ere, herri-tarren bizkar geratu zen ardura guztia. Bestalde, kaltetuenak izan diren sektoreetako kidegoarekin harremanak estutu eta gure babesa helarazi nahi genien, hauentzako inbertsio publikoak exijitzeaz gain. Aldi berean, herrian izandako gertaera erreakzionario eta faxistei erantzun gisa ere planteatu genuen dinamika, hauen indibidualismotik interes kolektiboetara salto egin eta elkar zaintza ardatz hartuta. Deialdi mobilizatzaileari emandako erantzuna oso positiboa izan zen herrian, eta arlokako saretzearen helburuan ere urrats batzuk egin direla esan dezakegu.



Alhoa Carrera Amondarain
Tolosa

COVID-19ren beste olatu baten aurrean egon gintezkeela ikusirik, eta herrian bertan ikusten hasiak ginen jarrera kezkarri batzuen aurrean, gure diskurtsoa kaleratzeko aukera gisa ikusi genituen “Non dago diru publikoa?” lelopean proposatutako mobilizazioak. Pentsaren bidez, kanal propioen bidez... gure komunitatearekin Sorturen diskurtsoa lantzeko baliatu genuen: jendeari sakrifizioak egitea eskatu behar badiogu, hauek inbertsio publikoez lagunduta joan behar dute. Gurean, dinamikak bi zati izan zituen: batetik, kontzentrazio bat antolatu genuen. Eta bestetik, AHTren zubibide batetik pankarta erraldoi bat bota genuen, osasungintzan, hezkuntzan eta sektore zaugarrienetan inbertitu beharrean, diru publikoa AHTa bezalako azpiegitura zentzugabeetan xahutu zela salatzeko.



Maddi Isasi Azkarraga
Amurrio

Borroka bide bakarra dela ez da kontsigna huts bat. Aiaraldeak edukiz eta esanahiez bete dituzte leloak, duintasunaren irudiekin bete dituzte portadak, eta kaleek zapalduon indar eta elkartasunarekin egin dute gainezka. Galtzeko

ezer gutxi daukagunok erraz ulertzen dugu elkarren beharra daukagula gure bizitzak defendatzeko; elkarrekin indartsuagoak garela eta borroka ezberdinek ez dutela elkar lehiatzen, baizik eta elikatu egiten direla. Mugimendua sortu eta elkarrekin aliantzak eraiki behar dira. Militanteok eta gure komunitateak daukagun bertuterik garrantzitsuena esku zabaltasuna da.



Maider Urtear Larregoi
Laudio

Gu gara auzo, ikasgela eta lantegietako motore; gu geu eta ez beste inor, eta beraz, eraldaketa sozialaren bidean herria da protagonista. Dena irabazteko dugun garai honetan, borrokaren oinarrian jarri ditugu elkartasuna, parte hartzea eta elkarlana.

Baita enpatia eta zaintza ere, iraultza egiteko moduetan ere gauza daitekeelako. Pankarta aurrean edo atzean; asanbladetan eztabaidatzen edo isilik egonez; kartelak prestatzen edo jartzen; kafeak hartzen; eta, deialdiak zabaltzen egon garen guztion indarrak ekarri gaitu honaino. Gurea duintasunaren iraultza ere bada, eta ez gara makurtuko! Ez dago atzera bueltarik, Aiaraldean ez dagoelako inor soberan!



Ana Mezo Basaras
Larrabetzu

Pentsiodunok lana, bizitza eta pentsio duina aldarrikatzen eta exijitzen dugu. Borroka honen oinarrian pertsona guztientzat eskubideak bermatzea dago, ikuspegi feministak blaituta, arrakalak desagerrazi daitezten. 2018ko urtariletik, astelehenero kalean gara: batetik, aldarrikapenak exijitzen, eta, bestetik, arlo publikoarekin negoziatzea egin nahi dutenen aldetik datozen erasoei erantzuten; pentsiodunok ez ezik, gainontzeko pertsona guztiek ere oraina eta etorkizun duina izan dezagun. Baina, borroka eta erantzuna ezin da indibiduala edo sektoriala izan. Erantzun kolektiboa eman beharrean gaude. Indarrak batzeko, eta dauden bitartekoak gehiengo sozialaren zerbitzura jarzea exijitzeko unea da. Sortuko kideok borroka eta erantzun kolektibo honetan parte izan behar dugu.



Anjel Alkalde Linares
Portugalete

Bizitza militantea norberaren hautu eta konpromisoa da: askatasunaren aldeko borroka. Hainbat izan dira urte luzeetan militantzia eta konpromisoarekin lotu direnak, euren artean Periko Solabarria laguna eta kidea. Bera bezala milaka gizon eta emakume ere badaude Euskal Herrian zehar kidegotasunera, elkartasunera, eta maitasunera batu direnak. Egunero dugu zerbait emateko, ekarpenak egiteko eta baita eredu garriak izateko ere. Horrexegatik Pentsionisten mugimenduan parte hartuz jarraitzen dut nire militantziarekin. Pentsionisten borroka "bizitza duinaren" aldekoa delako, pobrezia kontrakoa, eta bereziki emakumeen pobrezia kontrakoa. Beraz, denok batera egungo eta etorkizuneko duintasunaren alde, eskubideen eta askatasunaren alde egin behar dugu!



Jose Felix Aguilera Iturbe-Ormaetxe
Ondarroa

La lucha que se está llevando en el movimiento de pensionistas, tiene su arraigo en la lucha sindical por la mejora en las condiciones de vida de la clase trabajadora. Una pelea y unas reivindicaciones de todas: las ahora pensionistas pero también las futuras, las que están trabajando, las que están en paro, la juventud... Y como pueblo, tener un sistema propio en Euskal Herria. Un sistema público y propio, que garantice un futuro digno para las pensionistas vascas sin depender de lo que se decida en el estado y en ello estamos tratando de ir marcando suavemente, pero avanzando conscientes de que no será fácil. Es necesario, aquí y ahora, llenar de contenido el proyecto de seguridad social propia y luchar por él. Por ello nuestro lema es: Jo ta ke, lortu arte!



Miren Odriozola
Uzkudun
Azpeitia

Pentsiodunen borroka berria da. Baina, jadanik, hiru urte eta erdi daramatxagu pentsio duinak eta publikoak eskatzen, guretzat eta gure ondorengoentzat. Pandemia honek konturatu gara zaintzan gabezia asko daudela, eta zaintza pentsioak bezain garrantzitsua dela. Sortuko militanteok zaintza duin, publiko eta integral bat borrokatu behar dugu, gure adinekoen eskubidea delako. Egoitzetako zaintza, eguneko zentroetako, etxez etxekoa eta etxean gelditzen direnena duina izan dadin, beharrezkoa da herrietan jubilatutako taldeak osatzea, eta herriko egoitzekin, familiakoekin, udalekin, eta zaintzako langileekin mahai bat osatu eta gai hau lantzea. Gero eta adineko gehiago izango gara, eta arazo honi erantzuna eman behar diogu.



Xabier Elorriaga
Preciado
Arraia-Maeztu

Al terminar nuestra vida laboral, nos venden que ahora lo que toca es vivir bien sin contar con el caudal de experiencia militante. Una generación que le ha tocado romper con el fascismo y luchar en todos los ámbitos. El nacimiento de la izquierda abertzale fue clave para este cambio en la sociedad vasca. La decisión de formar LAB pensionistas, área muy importante para trabajar al servicio de la transformación por una sociedad justa e igualitaria. Necesitamos una respuesta activa en la calle, como militante de Sortu pienso que las personas mayores de la izquierda abertzale tenemos que ser un referencial ideológico en esta lucha. Las pensionistas tenemos otro gran problema a resolver: la dignificación de los cuidados a las personas mayores.



Lore Salaberria
Agirre
Elorrio

"Lelengoz, independentzian beharri zentzu bat topau dotzat", komentatu zidan asanblada feministako kide batek. Iazko abenduaren 12a zen, eta Emakume* Abertzaleon VIII. Topaketa Feministetan entzundakoak genituen hizketagai: hizkuntza, kultura, arraza eta nazio zapalkuntzak. Aspaldian, mugimendu feministan zapalkuntza desberdinak ikusarazteko eta aitortzeko lanean ari gara, eta hortxe, ertzak eta erdiguneak orekatzeko saiakera horretan, euskaldunak eta abertzaleak garen emakumeok badugu leku bat aldarrikatzeko. Gu ere bagara nor, beraz, Euskal Herri burujabe eta feministaren bidean; ikusarazi dezagun lurraldeak eta bizitzak eskutik doazen bi borroka eremu direla.



Paula Garcia
Garcia
Iruñea

Sortuko emakumeok, mugimendu feministari ekarpena egin baina, mugimendu feministaren parte garela esan nuke. Hortik egiten dugu ekarpena: Euskal Herri feministarantz pausoak emateko ekarpena da gurea. Mugimendu feministak azken hamarkadetan lan handia egin du, eta azken urteetan lehertu egin da. Potentzial handia du, izan ere, ikuspegi intersektionaletik bestelako borroka eta zapalkuntza batzuk aintzat hartu eta bere baitan ere lantzen ditu. Feminismoak gure proiektu politikoari ekarpena egiten dion heinean, hamaika aldiz zapaldu eta hamaika aldiz errebelde izateko lekua da mugimendu feminista, herria eraldatzeko tresna. Mugimendu feminista eskola izan da niretzat, ahalduzko eta aliantzak eraikitze espazioa.

Plaza Hutsa


Bizi ditugun krisiei erantzuna emateko jaio da Plaza Hutsa. Herrigintzatik. Auzolanean. Zerbait berria, ezberdina eta berdinzalea eraiki nahi dugu, herri honen inteligentzia kolektiboa baliatuta; euskalgintzan, feminismoan, ekologismoan, udalgintzan, metropolitetan, euskal imaginarioan eta abarrean metatutako esperientziak baliatuta.



Miren Mendinueta Lakuntza
Arbizu

Hezkuntzako Plaza Hutsaren helburua pertsona eta komunitatea erdigunean jarriko dituen eredu pedagogiko, aktibo eta kritiko baterako pausoak ematea da; hezkuntza publiko-komunitario burujabe bat garatuz.

Herri honen beharrak asetuko dituen Euskal Eskola Publikoa sortu beharra dugu: komunitatetik, herritik, euskaratik, feminismotik edota ama lurraiekiko errespetutik abiatuta. Esparru honetan ekarpena egin nahian parte hartu nuen Arbizun burutu zen Sakana-ko Plaza Hutsan.



Alberto "Titos" Porras Conde
Gasteiz

Plaza Hutsari buruzko lehenengo berria heldu zitzaidanean, ilusioz hartu nuen: ekimen berria, gogoe-tarako eta ekintzailtzarako espazio parte hartzailea... Oso ekimen interresgarria iruditu zitzaidan; abiapuntu irekia zuena, zabala, hainbat gairi buruz zenbait pertsonen artean hitz egiteko eta esperientziak konpartitzeko aukera ematen zuena.

Gero, Gasteizen egin zen Hezkuntzari buruzko Plaza Hutsean hartu nuen parte. Bertan piztu zen indarra eta ilusioa zoragarria izan zen. Gai polita bezain garrantzitsua da Hezkuntza, eta lagun anitzen arteko gogoetak, ideiak eta esperientziak partekatzeko aukera eduki genuen. Oso aberasgarria izan zen, eta gai korapilatsu batean proposamen zehatza ateratzea ere lortu genuen: (h)arian txostena. Gora herria!



Txomin Poveda
Urruña

Plaza Hutsa hausnarketarako gunea Ipar Euskal Herrira hedatu zen lehen aldikotz 2019ko martxoan. Bertan, Ipar zein Hego Euskal Herriko hamarnaka lagun bildu ginen burujabetza politikoarekin elkarlotzen den burujabetza materiala aztertzeke. Gure herrian, gaurko egunean, bide hori hauspotzen duten ehunka inizatiba herrikoi eta alternatiba konkretu daude.

Uhin zabal horretatik, elikadura, energia, baita moneta eta finantza burujabetzan jarduten dutenak ere elkartu ziren. Hausnarketa elementu ugarietatik haratago, egun horrek agerian ezarri du ezberdinen artean arituz, praktika militante alternatibo horiek ukan dezaketen eraldaketa potentzial izugarria Euskal Herria eraikitzeke.



Olatz Egiguren Enbeita
Bilbo

Ezker independentismoak herri-gintzaz hausnartzeko eremua izan dira urte hauetan antolatu ditugun Plaza Hutsak. Aro berri baterako herrigintza ereduaz aritu gara; Hezkuntza, Euskara, Ekologismoa edota prozesu herrigileen inguruko arnas luzeko gogoetak ere partekatu eta osatu dira.

Ehunka kidek hartu dute parte Plaza Hutsa saioetan, eta bertaraturakoen balorazioak jasota esan genezake harrera oso ona izan dutela. Are gehiago, horrelako espazio gehiago, eta gehiagotan, irekitzeko beharra ere antzeman dugu. Orain arte hausnarketa gai izan ditugun esparruetan, eta, baita, oraindik arakatzeko dauzkagun beste hainbat eremutan ere. Hori da aurrerantzean dugun erronka.

Den dena erabaki nahi dugu!

Eredu ekonomiko eta sozial justua eraiki nahi badugu, egiazko demokrazia nahi badugu, geuri dagozkigun erabakiak guk geuk hartu behar ditugu, hemen, geure buruaren jabe izanik eta kanpo-injerentziarik gabe. Horixe da eredu ekonomiko eta sozial justua eraikitzeke bermea. Izan ere, pertsona librez osatutako jendarte askea dugu amets.



Ander Errazkin Egilegor
Irun

2018ko Irungo Herri Galdeketak irakaspen asko utzi zituen ezkertiar eta independentistontzat: erronka zehatzak eta egingarriak proposatuz gero, Irunen ere oso baliagarria den jende asko eta anitza badagoela; elkarrekin lan egiteko moduak asko zaindu behar direla; auzoka antolatzea eta erronka nazionalak eta lokalak uztartzea ezinbestekoa dela; eta batez ere, orain prestatuago gaudela erronka handiagoetarako, teoriak gain praktika ezagutu dugulako.



Ander Perez Argote
Iruñea

2017ko urriaren 1ean Euskal Herriak Kataluniara begira igaro zuen eguna. Iluntzea pasatuta bakarrik altxatu genuen burua pantailatik, eta kalera atera. Egunean zehar pilatutako amorrua kanporatu nahi genuen, eta babesa adierazi. Iruñean izan zen burrunbetako bat, egunean bertan deitua, modu herritarrean. Jendetza bildu ginen, Alde Zaharretik Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzara, eta buelta. Elkartasuna bezala, joan-etorrikoa.



Monika Muro Pérez de Heredia
Soraluze

Ilusioz bizi izan nuen giza katea antolatzearen ardura, horrelako egitasmo erraldoi bat antolatzeak jende askoren ilusioa eta konpromisoa behar du.

Bestetik, jendearengana gerturatu eta erronkaren tamainaz eta edukiko zuen garrantziaz jabetzen ahalegintzea, hori izan zen gure lana. Dena ondo joatearen ardura genuen. Eta uste dut herri moduan lortu genuela.



Koldo Castaños Lekue
Barakaldo

Erabakitzeke eskubidea herri libre bat izateko giltza da. Aurrera joateko, oinarritik eraikitako mobilizazio erraldoia beharrezkoa da. Giza katea abiapuntu berria eta parte hartzailea zen. Ilusioz, gure betiko jendearengana baino haragokora ailegatu ginen. Lagun taldeetan, elkarteetan, auzoetan... harremanak josi genituen benetako auzolana antolatuz. Egun hartan jende zoriontsua ikusi nuen.



Aratz Urruzmendi Lizeaga
Igeldo

Tokian toki ere euskal errepublikaren aldeko lan-keta egin behar zela argi genuen. Balorazioa positiboa izan zen, sentsibiltate ezberdinetako jendearengana hurbiltzea lortu baikegun. Aurrera begira, ideia hau hegemoniko egitea lortu behar dugu: Euskal errepublika herritarren oinarritzko beharrak ase eta bizitza ona bermatzeko tresna da.



Urtzi Etxeberria Aierdi
Donostia

Gure asmoa Euskal Errepublikarekiko aldekotasuna zabaltzea (abertzaletasunaz gain, bestelako elementuak txertatuz) eta Sortuk kalean zuen presentzia eskasari buelta ematea zen. Eguneroko arazoak Euskal Errepublikarekin lotzen saiatu ginen, eta bereziki pentsioen arloa landu genuen. 2018ko Aste Nagusiko manifestazioarekin amaitu genuen kanpaina. Orokorrean ongi atera bazen ere, ez zuen jarraipenik izan.



Boterea herriarentzat!

Ohiko boteregune ekonomiko eta politikoetan ez dute ezkerreko mugimendu independentista maite, haien etekin pertsonal zein korporatiboen aurkako mehatxutzat dutelako. Herri- eta langile-sektoreen mesedetan ariko den gobernantza eredua behar dugu. Sortuko militanteok EH Bai eta EH Bildu indartzeko lanean dihardugu, boterea herriarena izan dadin.



**Maddi
Altuna
Galfarsoro**
Zumaia

Boterea nahi dugu, guztia aldatzeko. Guztia aldatzen hasteko behintzat. Kontraesanak dakartza instituzioetan aritzeak. Asko. Eta ez da batere eroso hor egotea (ez guretzat behintzat), sistemak ezarritako modu eta arauen barruan mugitu behar garelako askotan. Baina, esan dezaket, orain, inoiz ez bezala nabaritzen dugula zein eragin duten gure jardun eta erabakiek. Boterea dagoen leku guztietan borrokatu behar da, boterea duenak mantentzen ala iraultzen baititu gauzak. Horregatik egon behar dugu instituzioetan ere. Herritarrok, herritarrengandik gertu, herri hau gobernatzeko. Herri mugimenduetatik asmatzen ditugun praktika eta politikak botereguneetara eramateko.



**Garazi
Perea
Prego**
Bilbo

Ezinbestekoa da boterea instituzioan bakarrik ez dagoela ulertzea; are gehiago, gobernura iristeak ez du esan nahi boterea eskuratzea. Boterea sakabanatuta dago estamentu desberdinetan: gizarte zibil antolatuan, merkatuan eta administrazioan bertan; eta horien arteko elkarrekintza eta erresistentzia izango dira prozesu herrigilea josiko dutenak. Hortaz, eraldaketarako prozesuak estrategia poliedriko bati erantzun beharko dio. Beraz, instituzioan egin nahi dugun aldaketa, ez da inondik inora ere estrategia instituzional hutsetik eratorriko; horren adibide dugu Iruñea, erregimenaren aurkako borrokak ekarri zuen polarizazio sozialaren ondorioz etorri baitzen aldaketa.



**Itxaso
Cuevas
Lopez**
Donibane Lohizune

EH Bairen sorrera eta kasik 15 urtean egindako bidea ikusirik, eta, oro har, Ipar Euskal Herrian urte horietan egondako aitzinamendua ikusirik, biziki garrantzitsua iduritzen zait EH Bairen baitan lan egitea. EH Bai da Ipar Euskal Herriko egoera eta erronkei hobekien erantzuten ahal dien alderdi bakarra. Abertzaleen lanari esker lortu dugu gure lehen aitortza instituzionala 2017an, Euskal Elkargoaren sorrerarekin. Instituzioetatik harago ere, Ipar Euskal Herriko erronkei hobekien erantzun diezaiekeen mugimendua da. Abertzale, ezkertiar, ekologista eta feminista guzien etxea, eta behar-beharrezkoa iduritzen zait Sortuko eta EH Baiko kide gisa, horretan sinetsi eta bertan indarrak jartzea.



**Xabi
Goikuria
Oiarbide**
Agurain

Euskal Herriaren burujabetzarako bidean aurrera egiteko, gure proiektu politiko ezkertiar eta abertzalearen alde indarrak biltzeko eta, funtsean, amesten dugun Euskal Errepublikaren errealitate bilakatzeko oso garrantzitsua da eremu instituzionalean egin beharreko jarduna. Baina aurrean ditugun erronkei ezin diegu eremu instituzionaletik soilik erantzun, ezinbestekoa da bide hau instituzioen eta gizarte antolatuen arteko elkarrekintzaren bitartez egitea. Eskala ezberdinetan, herrigintzatik naziogintzara, instituzioak tresna gisa baliatu behar ditugu Euskal Herria altxatu eta norabidez aldatzeko.

Gora herria!



**Txekun
Lopez de Aberasturi**
Ibañez de Garaio
Iruñea

La izquierda abertzale nunca ha tenido fácil difundir sus ideas. Los grandes medios de comunicación siempre han preferido hablar de nosotros que darnos voz, y en la era de las redes sociales, no es fácil hacerse oír en este mar de infoxicación. Con Gora Herria! Basque People (GH!BP), queremos actualizar, aquí y ahora, la tradición agitprop de la izquierda abertzale. Para ello, hemos retomado una nueva/vieja forma eficaz de acción político-comunicativa: el activismo. Estamos intentando poner todas las variantes de expresión artística al servicio de una guerrilla de la comunicación, para activar formas creativas de movilización, denuncia, reivindicación y lucha, tanto desde las calles como desde las redes. La fuerza de GH!BP radica en la capacidad de sorprender, impactar, transgredir, emocionar, conmover y conectar; y es así como queremos traspasar ese muro de in-comunicación mediática y de “ruido” des-informativo.

Es importante romper rutinas e inercias autocomplacientes. Queremos llegar más lejos y a más gente. Pero para ello, debemos crear nuevas narrativas capaces de alterar los códigos y signos establecidos, y contruir nuevos imaginarios que activen nuevas respuestas socio-políticas. Porque ese es el objetivo prioritario: apoyar e impulsar diferentes dinámicas de lucha popular. (Recordemos que es un partido político quien lo desarrolla, y no una ONG, un movimiento social o un colectivo artístico, como es lo habitual). En su corto espacio de vida GH!BP ha logrado desplegar un amplio abanico de acciones en diferentes temáticas y estilos, ya que creemos que éstas deben ser diversas en formato y tono. Toca ahora una valoración crítica de lo hecho, aprender de la práctica para seguir desarrollando con fuerza y creatividad todo el potencial de GH!BP. Aurrera!



**Maider
Lazkano**
Iturrino
Mutriku

Harrera sareetako kideek askotan azaldu digute errefuxiatuen egoera larria: asko datoz, egoera kaxkarrean, bertan geratzeko baldintza duinik gabe... Kontxako ekintzaren bidez, harrera sareen lana txalotu eta haien manifestazio deialdiak indartu nahi izan genituen. Kontxako argazkia eta hurrengo egunetako mobilizazioak izugarriak izan ziren. Euskal Herria, harrera herria!



**Aitziber
Ruiz**
Alvarez
Sestao

Esaten dugunetik harago, egiten dugun oro komunikazioa da, gure ekinbide osoak komunikatu egiten du. DAPak, ekintza artistikoa izaki, publikoarengan eragiten du zuzenean: egoera antzestu ahaltsua da, ikusgarria eta exekuzio sinplea duena, horrela mezuaren sakontasuna transmititzen du. Finean, gure ekintza komunikatiboa hori da: norbanakoak bizitako kolektibora eramateko etengabeko saiakera.



**Zigor
Merodio**
Larraona
Bilbo

Mont de Marsanen preso nengoela, ekintza antifaxista bat bururatu zitzaidan eta Sorturi proposatu nion. Sinplea eta eraginkorra: desinfekzio antifaxista. Lehen aldiz Kursalen egin zen, batera jotze antifaxista baten osagarri. Gero, erreplikak egin dira Euskal Herrian eta kanpoan, ekitaldi faxistak salatzen.

Istoria osorik irakurtzeko, sartu QR-an.



**Beñat
Azkona**
Lopez
Iruñea

Urriaren 12an, kolonialismoa eta 78ko erregimena botako dugula irudikatu nahi izan genuen, Colonen eta Felipe VIaren estatua bana botaz. Ekintza antzestua izan arren, Espainiako Auzitegi Nazionalak deklaratzera deitu gintuen, erregimenaren kontrako edozein borrokak zenbat min egiten dien argi erakutsiz. Berriz egingo genukeela eta egiten jarraituko dugula erantzun genien.



Ziklo bat itxi Herria irabazteko

ETA erakundeak eta borroka armatuak askapen prozesuaren eboluzioan hamarkadetako bide luzea ezaugarritu dute. Prozesua Herriaren esku osoki jartzeko aukerez konbentziturik, estrategia aldaketarekin ziklo hori ixtea beharrezkoa zen.



**Mikel
Irastorza
Artola**
Baiona

Bi estatu zapaltzaileek beren esku zutena egin zuten aldaketa estrategikoa betiko hondoratzeko. Arrisku hori hatz puntekin ukitu genuen. Alta, ezker abertzaleak asmatu zuen ziklo historiko hori behar bezala ixteko inizatibak hartzen. Armagabetzea dugu adibide argienetakoa: armen auziari munduan aurrekaririk gabeko moldez eta babes handiz aterabidea emateaz gain, konponbidean euskal preso politikoen gaia lehen lerroan jarri eta herri prozesu ikuspegiko bide berriak ireki zituen. Urrats hori, eta militanteen kohezio handiz gauzaturiko ETaren desegiterik gabe, ezinezkoa zatekeen bost urteotako pausoak ematea. Ziklo bat ixtea lortu dugu modu ordenatuan, eta orain berrirako prest gaude, erronka nagusi honekin: Herria irabaztea.



**Elena
Beloki
Resa
Hernani**

Indar bat sortu zen aspaldi gure herrian, munduan beste leku askotan legez. Gure proiektuaren erdigunean herriak eta pertsonak jarri nahi genituen eta, bide horretan, Miribillako ekitaldiak beste aro bat zabaldu zuen. Askatasunaren bidean jarraitzen dugun eta herritik sortu zen indar horixe gara egun ere. Ispiluaren aurrean jarri gintuen 2018ko primaderako egun horrek. Zer ginen, zer garen eta zer izan nahi dugun elkarrekin errepasatu, pentsatu eta sentitu genuen. Bizi-borrokak gure herria eta jendartea begiratzeko eman digun aparteko talaiatik, gure gorputzen zaurgarritasun, ahulezia eta sendotasunetik alegia, XXI. mendeko Euskal Herri libre eta burujabea gauzatzen jarraitzeko inteligentzia kolektiboa eskaini digu.



**Emilie
Martin**

Donibane Garazi

Bakegileek antolaturiko Pariseko "Orain presoak" mobilizazioa armagabetze egunaren biharamunean antolatu zen; egun horren biharamunean, norbanako eta eragileok aktatu genuen hurrengo etapa presoaren egoeraren konponketa izan behar zela; hortik atera zen "Orain presoak" leloa eta Pariseko mobilizazioaren ideia. Nik, zehazkiago, presondegietako biran parte hartu nuen; hau da, manifa aitzineko hilabete osoan joan ginen talde bat presondegiz presondegi. Bertako eragileekin bildu ginen, baita presondegi-tako eskualdeko zuzendaritzekin ere. Orokorrean, ekinbide hau oso aberasgarria izan zen, elkarlan eta ezagutza asko eta, nola ez, eman-korra, lehen hurbilketak adostu eta izan baitziren hortik hilabete batzuetara.





**Kepa
Arkauz
Zubillaga**
Arrasate

Nerabe nintzela hasi nuen nire ibilbide militantea ezker abertzalean, zehazki, gazte mugimenduan. Ordutik hainbat erakundetan jardun dut boluntario, tartean, ETAn. Bertako kide izatea egotzita Frantzian espetxeratu ninduten, eta lau urteko espetxealdi labur baten ondoren bueltatu nintzen Arrasatera. Euskal Herriko ziklo politikoaren aldaketa, abiadura bizian aldatzen den jendartea eta egiteko modu berriak aurkitu nituen herrira itzultzean. Hala ere, nazio askapen mugimenduarekiko konpromisoak eta askapen borrokarekiko ardurak militatzen jarraitzeko beharra mantendu zuen nigan.

Akatsak, desadostasunak eta kontraesanak kontraesan, ekarpen militantea egiten jarraitzeko gertuko sentitzen dudana proiektu politikoa da ezker abertzalearena, eta horregatik militatzen dut gaur egun Sortun. Preso politiko ohi guztioi urte luzeetako ibilbidean ehunka kidek pilatu dugun ondare militantea prozesu independentistaren mesedetan jartzea dagokigula uste dut. Herri honi askatasuna emango dion bidea jorratzearekin batera ekarriko baititugu gainerako preso, iheslari eta deportatuak etxera.



**Urtza
Alkorta
Arrizabalaga**
Ondarroa

2016ko abenduan Usurbilen izan zen Kaleragunean hainbat ekintzatan parte hartu nuen; horien artean, emakume errepresaliatu ohion artekoa azpimarratu nahiko nuke. Emakumeon txanda osatu eta gure tartearen izan genuen, hausnarketetarako espazioa eta denbora hartuz. Plazera eta ohorea izan zen emakume kideekin egun horiek konpartitzea.

Gure bizipenetatik abiatu, eta elkar ezagutzeko eta ahizpatasunerako tartearen izan zen hura, garrantzitsua oso. Emakume militanteok inoiz ez gara ikusezinak izan estatuentzat, poliziak inoiz ez zuen begi bistatik galdu emakumeak ginela... Baina ikusezin bihurtuak izan gara. Horren aurrean, ikuspegi feminista batetik gure eta egun kartzelan dauden emakume presoekin bizipenak jasoz, "Hemen gaude" manifestua atera genuen.

Uste baino garrantzitsuagoa izan zen niretzat, emakumeok propioki gure bizipenen inguruan aritzeaz gain, emakume erreferenteak zuzenean ezagutzeko aukera izan nuelako; ezkutuan jarraitzen duten emakume militante erreferenteak. "Badelako garaia, Itziarrek semeak ez ezik, alabak ere izan zituela aitortzeko.



**Bego
Martinez
Elgarresta**
Galdakao

2017ko uda zen eta gure herrietako kaleetako hormak "Kalera martxa" karteletan josita zeuden. Egitasmo ederra: Gernikatik Lakuntzara arte, oinez, herriz herri, euskal preso eta iheslari politiko guztien eskubideak lau haizetara aldarrikatzeko. Herriko tabernara joan eta izenak eman genituen.

Egun ezin hunkigarriagoak izan ziren. Bidean, aurretik furgoneta, eta atzetik peto horidunak eta peto laranjadunak euren antolakuntza lan fina aurrera eramaten. Hasieratik, giro onak familia bihurtu gintuen. Oso gogoan ditugu bidean bizi izandako abestiak, omenaldiak, ekitaldiak, eguneroko argazki eta erreportaje bikainak... baina, batez ere, ez dugu inoiz ahaztuko, herriz herri, gure herritar askoren boluntario lanari eta maitasunari esker, izandako harrera eta arreta guztiak, benetan eskertzekoak. Itzelezko herri mugimendua izan zan Euskal Herri osotik, betiere, gure presoak oso presente. Lau urte pasatu dira, eta atzera begiratuz gero, ezin uka aurrerapausoak egon direla; hala ere, argi dago oraindik ere herri indarra eta borroka zutik mantendu behar direla, apurka-apurka bide zuzenetik herri aske baten helburu guztiak lortu arte.



**Iñaki
Alonso
Rubio**
Portugalete

Sortuk herrietako egituretan eratu nahi duen presoaren arduradunak berebiziko garrantzia du, bai arlo politikoan, baita giza arloan ere. Bi arlo horiek, preso dagoen militantearen kasuan, eskutik helduta doaz; kide presoaren zutabe ideologiko-politikoak sendotzen laguntzeak, halaber, haren osasun psikiko-emozionala babestearen alde egitea dakar. Preso dagoena ez da hain preso sentitzen bere borroka-kideak, kaletik, berarekin lotura pertsonal eta politikoak mantentzeaz arduratzen badira; ziegako bakardadean gogoeta egiten duenak, berriz, ez du hainbesteko bakardadea nabaritzen bere haragian proiektu amankomun honen, borroka honen zati bat dela sentitzera irits daitekeenean, nolabaiteko lotura emozionala bizitzen duenean. Lagun presoak erresilientzia irabazten du. Guztion lana da preso dauden lagunek gure herriaren errealitatearekin lotura iraunkorra izan dezaten bermatzea. Egia esan, askotan saiatu gara; batzuetan, eta nolabait, lortu da, nahiz eta errepresioak une garrantzitsuetan ere eragotzi duen. Orain, Sortuk ildo horretan ahaleginak egingo ditu, barruan dauden lagunekiko hartu-eman politiko zein humanoa bermatzea da helburua. Zorionak eta zorte on.

Jaia bai, borroka ere bai!

Boluntario tropel handiak behar izaten dira tamaina handiko jaialdi aldarrikatzaileak aurrera ateratzeko. Sarrera-irteeretan, segurtasunean, txosnetan, txartelak saltzen, *backstage*an, muntatzen, desmuntatzen edo beste edozein zereginetan aurkituko dituzu Sortuko militanteak, beti prest. Festa sozializatzeko eta aldarrikapen politikoetarako espazioa ere badelako. Hemen, hiru adibide.



**Amaia
Cambra
Gutierrez**
Iruñea

Badira jaialdiak soilik musikari tartea egiteko lekua direnak, baina hau ez da gure eredia.

Hatortxuk, musika katalizatzaile gisa erabiliz, milaka lagunengana darama euskal preso politikoan afera. Batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago hausnartuko dute gaiaren inguruan jai giro baten baitan, baina Hatortxuk lehen lerrora darama preso eta haien senideen egoera, kostu ekonomikoa ere, ahal den neurrian, leunduz. Injustiziek gutxi dute zerikusirik aipatutako jai giroarekin, baina ederra da egoera latzen gainetik dagoen maitasuna ospatzea. Zer esanik ez, dena antolatzeko gure kulturak emandako ohitura eta tresna ederrena baliatzean: auzolana.

Beraz, badira jaialdiak soilik kultura, salaketa, borroka, maitasuna eta ohiturari tartea egiteko lekua direnak. Soilik? Ez da gutxi



**Saioa
Elejabarrieta
Amorrtu
Lemoa**

Berezia izan zen Lemoako topagunea, hainbeste urtean hainbeste topagune gure herritik kanpo ospatzen eta gozatzen ibili ondoren, oparia eta erronka izan zen Lemoan antolatzea. Ilusioz beteta ekin genion lanari, eta neurri horretako ekimen batek eskatzen dituen lan luzea eta konpromisoa bertatik bertara ezagutu genituen. Asko eta asko izan ginen esku bat botatzera animatu ginen herri-tarrok, bakoitzak ahal genuen neurrian. Harreman estua sortu zen herritarren eta antolakuntzako beste kideen artean. Azkenean lanak bere fruituak eman zituen, eta egun paregabeak pasa genituen jaia eta aldarrikapena uztartuz. Azpimarragarria da ekintzen bidez lortu genuela horrelako ekimen erraldoi bat herri txiki batean egiteak sortzen dituen beldurrak uxatzea. Itxaropentsua da Euskal Herrian gazte sektore konprometituek antolatzen eta borrokatzen jarraitzen dutela ikustea.



**Muhamadu
Ladur
Sidahamed
Agurain**

Bi hamarkada baino gehiago pasa dira Euskal Askapen Mugimenduak sorturiko “martxa eta borroka” lelo famatu hark, lehen aldiz, gure herrietako plaza eta agertokiak hartu zituenetik. Urteak pasatu arren, bizirik dirau garai hartako izaerak. Horren adibiderik argiena Gararen aurkako espolioari erantzuteko festibalean bizi izan genuen.

Izan ere, egun hartan adierazpen askatasunari irribarrez eta doinu arinez egin genion aurre, jaia- ren poza eta borrokaren kemena uztartuz. Illun- betik espainiar estatuaren basakeriari auzolan eta elkartasunez erantzun genion, borrokatzeaz gozatzen genuen bitartean. Dantzatzen den herria ez baita inoiz hilko. Antolatzen eta borrokatzen den herria ez baita inoiz hilko.

Eskala Politikoak



**Mikel
Urdangarin
Irastorza
Beasain**

2018ko Diadaren bueltan egin genuen Kataluniako Eskala Politikoa, hiru egunez. Ez zen nolanahiko data, urriaren 1eko erreferendum historikoaren ondorengoa baitzen. Oso esperientzia aberasgarria izan zen: batetik, eremu politiko, sozial eta akademikoko kideen irakurketak jaso genituen. Bestetik, zenbait ekimen eta mobilizazio herrikoietan hartu genuen parte. Eskala borobiltzeko, bilkura bat egin genuen bertaratu ginenok, hango eta hemengo prozesuen gako nagusiak identifikatzeko. Giro ederrean, harremanak josi eta irakaspen interesgarriak atera genituen.



**Maitane
Azkona
Arraiza
Gares**

2019ko Kubako eskala politikoan parte hartu nuen beste 9 kiderekin batera. Talde polita osatu genuen, eta hasieratik oso gustura egon ginen. Gainera, bertako kontaktuek, Emeriak eta Kobak oso erraza egin ziguten bidaia, haien jakinduriarekin eta haien bertako kontakizunekin. Egia esan, Kubako egoera ezagutzeko oso baliagarria izan zitzaidan eskala, bai joan aurretiko formakuntzan, baita bertako kideekin egindako elkarrizketetan ere. Herrialde baten egoera ezagutzeari eta sozialismoa helburu duten beste herrialdeen esperientzia bertatik bertara ezagutzeari ezinbestekoa dela uste dut gure sozialismoa eraikitzeko bidean.



**Esther
Lopez
Angulo
Algorta-Getxo**

Conocer otros procesos políticos, aprender de ellos para adaptarlos a nuestra realidad y avanzar como pueblo. El trabajo y los logros del Frente Amplio me han ayudado a entender la importancia de nuestra estrategia, aprendiendo de cómo otras compañeras han superado las contradicciones de ese camino.

Además, participar en ese viaje a Uruguay no solo ha sido importante en mi desarrollo militante, sino muy enriquecedor a nivel personal, con un grupo y un ambiente inmejorables. Recordaré con mucho cariño este viaje y lo tendré guardado por mucho tiempo.



**Oskar
Biteri
Castañares
Gasteiz**



He participado en varias brigadas con Askapena y en principio es una experiencia similar. Aunque en este caso concreto el grupo completo estaba formado por personas militantes y era más diverso en cuanto a edad, género y procedencia de los integrantes. Una experiencia interesante y recomendable. Es una forma de conocer de primera mano los procesos políticos de otras partes del mundo. En este caso, Cuba. Una referencia histórica pero que está viviendo su proceso de transformación en el mundo actual. Conocer cómo afrontan sus contradicciones entre el modelo ideal que tenemos o queremos alcanzar y el mundo real en el que vivimos.



**Ander
Alfaro Rodriguez**
Tutera

KLK zikloa egin nuen duela pare bat ikasturte beste kide nafar batzuekin batera. Zikloa berria zen. Hilabete batzuetan zehar formatzen aritu ginen saio presentzialen bidez eta online genuen materialarekin. KLK trebakuntza zikloak zenbait arlotan formatzeko aukera ematen du; taldean eztabaidatuz, informazioa eta ikuspuntu desberdinak elkartrukatzuz, eta abar. Besteak beste, gai hauek lantzen dira: Ezker abertzalearen historia, prozesu iraultzaileen ibilbidea, feminismoaren historia, pentsamendu kritikoa garatzeko edukiak edo dinamizazio politikoa. Militante gisa kolektiboki ikasi eta eztabaidatzeko aukera ona da.



**Aimar
Lopez Erasun**
Hendaia

2018-2019 ikasturtean parte hartu nuen KLK trebakuntza zikloan, Baionan, eta bi urte pasa badira ere, hurbileko zerbitzu bezala dut buruan. Izan ere, KLKk, izenak dioen bezala, trebatzen laguntzen du, baina arlo teorikoetatik askoz harago doa; harremantzen eta elkarrengandik ikasten trebatzen gaitu, baita gure ondare politikoa ulertzen eta hura praktikan jartzeko gakoak ematen ere. Horixe da, nire ustez, KLK zikloaren abagune nagusia: esperientzia, gaitasun eta jakitateetan talde anitza sortzen dela, eta formatzaileen laguntzarekin sortzen den talde sinergiak denoi eskaintzen digula bertzeak eta gure burua elikatzekeo parada.



**Maialen
Kortabarria
Zabala**
Gazteiz

Euskal Herriko hainbat kidek KLK zikloa egiteko aukera izan dugu aurren; eta hainbat arabar ere bi hilabetez aritu gara hamaika gai eta ertz lantzen, aditu eta arituen eskutik. Gaitasun indibidual eta kolektiboak garatzeko aukera eman digu, eta askapen prozesuan ezinbestekoak diren jakintza eta tresnetan trebatzeko gunea eskaini digu. Ahal duntze kolektiborako espazioak izateak duen garrantziaz jabetu eta egunerokotasuneko zurrumbiloan geldiuene bat izan da ikastaroa. Elkar ezagutu, iritzi eta hausnarketak konpartitu eta elkarrengandik ikasi dugu. Komunitatea sendotu dugu. Atzo baino gehiago, bihar baino gutxiago. Mugimendua gara eta mugimenduan gaude; eta horrela izaten jarraitzeko, beharrezkoak dira KLK bezalako trebakuntza zikloek eskaintzen dizkiguten arnasaldiak.



**Itziar
Amunategi
Barandika**
Bilbo

Erria eraldaketarako aldizkari politikoa da. Euskal Herrian ezkerreko eta independentistok ditugun erronka politikoei ikuspegi zorrotza eta sakona eskaintzen die, aditu eta arituak diren kolaboratzaileen hausnarketaren bidez, eta aurrera egiteko bideak bilatzen ditu. Askapen prozesuaren ikuspegitik, ezker abertzaleko kideen jakintza eta inteligentzia kolektibotik elikatzekeo asmoarekin sortu genuen, borroka ideologikorako tresna estrategikoa gisa. Uste dut, izaera eraikitzaile, kritikoa eta pedagogikoa duen heinean, borroka ideologikoan eragiteko potentzialitatea duela. Begirada pausatua, jakin beharreko auziez hausnartzeko eta ezker abertzaleko komunitatea trinkotzeko ezinbesteko erreferentzia tresna izatea nahi dugu.



**Oier
Zuñiga
Perez de Urabain**
Iruñea


Arteak mundua ulertzeko beste-lako mekanismoak eta lengoaiak eskaintzen dizkigu. Errealitate paraleloak, imajinarioak, bizi ditzakegu antzokian, abesti batean edota marrazki batekin; inguratzen gaituen kaosari heldulekuak topatuz. Gure begirada ez da soilik eraikiko ezagutza bide arrazional-zientifiko arautuekin. Munduarekiko ikuspegia, zein nola jardun dugun bertan, gainontzeko eta bestelako faktoreek ere eragiten dute. Ideia, sentsazio eta sentimenduek forma estetikoak behar dituzte, ezagutza mekanismo gisa konprenituak edota egitate bilaka daitezkeen. *Erria* aldizkarian hausnarketarako, pentsamendurako, bide imajinarioak eskaintzen saiatu naiz. Ekintza estetikoak ezagutzarako zein errealitatea iraultzeko posibilitate gisara eskainiz.



**Maria
Mungia
del Pozo**
Donostia

Asko gustatzen zait sortzaile iza-teagatik aldizkaria etxean jasotzea. Izan ere, gaurkotasun handiko gai potoloak lantzen dira bertan eta politikoki elikatzekeo balio dit. Hala ere, egia esatearren, txioen txokoa irakurtzen dut aurrena, arina eta laburra delako. Ondoren, zein artikulua dauden begiratu eta nondik hasi aukeratzen dut. Hori bai, ez dira komunetan zauden bitartean irakurtzekoak, baizik eta mahaian eseri eta azpimarratzekoak! Aldizkariaren ukitu artistikoa ere oso berezia iruditzen zait. Beti ematen dit atentzioa azalak, baita kontrazalaren barruko irudiak ere. Azken alean, erdialdean, artelan bat txertatua zegoen eta pila bat eskertu nuen, ez nuelako piperrik ulertu eta sorkuntzari edo arteari buruz ere elikatu beharra dugulako!

Kongresuaren kronograma



Kongresu prozesu honen bitartez, Zohardian finkaturiko norabide politikoan murgildu nahi dugu. Era berean, ezker abertzalearen komunitatea sendotu, hedatu eta aktibatu nahi dugu.

Uda honetan Nazio Topaketetan ateratako ondorioak oinarri hartuta, Nazio Kontseiluak ponentzia politiko-organizatiboa osatu, eta irailaren 29an aurkeztuko du. Egun horretatik aurrera, kongresuak bi fase izango ditu: lehenengoan ponentzia politiko-organizatiboa eztabaidatu eta erabakiko dugu, eta bigarrenean zuzendaritza berria.

Aipatu dugunez, kongresu prozesuan ere gure komunitatea indartu nahi dugu. Horregatik, eta pandemiak gure harreman sareak ahuldu dituela kontuan hartuta, garrantzitsua izango da herri batzarrak antolatzea, gure kidegoa eztabaida politikoaren inguruan berriz elkartzeko.

Azkenik, Plan Feministari jarraiki, kongresu prozesu honetan emakumeak Sortura hurbiltzeko apustua egin dugu. Erroka horri lotuta, herrietan esfortzu berezia egingo dugu.

Herria / Lehentasun

Lorpen horiek guztiak ezin dira ulertu milaka militan-tek egindako ekarpenik gabe. Bakoitzak beretik, eman dezakeena emanez, guztiok gara beharrezkoak. Ezker abertzaleko militanteok gara Euskal Herriak aurrera anbizioz jarraitzeko erre-gaia. Zer litzateke gure herria ezker abertzalerik gabe? Non geundeke?

Euskal Errepublika bat dugu xede, berbatua, euskalduna, so-zialista, feminista eta planetarekin errespetuzkoa. Gure 60 urteko ibil-bidearen eta kultura militantearen onena birproduzitu eta etengabe berritzea helburu horietara iriste-ko bermea dira.

Pandemian ikusi dugu zeinen zaugarriak garen gutako bakoitza, eta zein zaugarria den gure herria. Aldaketa handien garaiak datoz eta, beraz, gure helburuetara iris-teko aukera berriak ere parez pare irekiko zaizkigu. Klima larrialdia, zaintzaren krisia, euskararen aur-kako erasoaldia, krisi ekonomikoa eta lan munduan datozen aldake-tak inizatibaz erantzun beharreko erronka itzelak dira. Amaierarik ez dago aurrez definituta, eta egun ditugun baldintzak ahalik eta on-doen baliatuta, borrokan segitzea da bigarren bermea.

Euskal Herriaren askapen proze-suak gutako bakoitzaren konpro-misoa eta laguntza behar du. Ga-renagatik, izan nahi dugun horren alde, egin zaitez sortzaile!

Afiliazio fitxa

Izena	Abizenak*	NAN*
Jaiotze data*	Sexua*	Helbidea
Herria*	Posta kodea*	Eposta*
Tfnoa*	KUOTA*	Hilabetean 10€
Kontu korrontea*		
I B A N		
Ikasketak		Lanbidea
Sindikaturen batean afiliatuta zaude?		Herri Mugimenduren bateko partaidea zara?
Nola jaso nahi duzu informazioa?	Zein hizkuntzatan?	Lege-Oharra eta Pribatutasun-Politika
Eposta	Posta	Euskaraz
Sinadura		

Eman dizkiguzun jite pertsonaleko datuak SORTU eta IRATZAR FUNDAZIOA ardurapeko fitxategi batean landu eta gordeko dira. Era berean, datu horiek SORTU kide den Korporazio, talde edota koalizioei laga ahal izango zaizkie; eta SORTUren webgunean kontsultatu ahal izango dira talde, korporazio edota koalizio horiek edozein unetan. Honen bidez, sinatzaileak, espresuki baimentzen du SORTU, zerga-administrazio eskudunari bere datuak emate-ko, egindako ekarpen edo kuotei dagozkien kenkariak aplikatzeko. Sinatzaileak, halaber, berariazko eta zalantza-rik gabeko baimena ematen dio SORTUri bere irudiaren difusioa egiteko webgunean, intranetan, sare sozialetan, aldizkarietan, argitalpenetan, erakusketetan nahiz beste edozein bitartekoren bidez. Hori egiteko orduan, hona-ko bi lege hauek beteko dira beti: 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzkoa, eta 15/1999 Legea, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa. Gainera, dagozkionak badaki edozein pertsonak bere profil irudia ikusi ahal izango duela entitate baimendunak hura argitaratzen duen edozein hedabidetan sartzean. Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoarekin bat, datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko edo aurka egiteko eskubideaz baliatzeko, jo ezazu Zuatzu industriagunea, Easo Eraikina, 4, Behe solairua 4-7 (20018 Donostia) edo bidal ezazu mezu elektronikoa sarea@sortu.eus helbidera.



**Borrokatu ezean
ez da irabazten.**

